

XX EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO TXOSTENA 2024



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LANKIDETZA:

GREMIO
DE EDITORES
DE EUSKADI



EUSKADIKO
EDITOREEN
ELKARTEA



FEDERACIÓN DE GREMIOS
DE EDITORES DE ESPAÑA

AURKIBIDEA

EDUKIEN AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
EDUKIEN AURKIBIDEA	2
TAULEN AURKIBIDEA	3
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	5
Sarrera	6
Metodologia	7
Argitalpen Sektorea, Oro Har	10
Argitalpen Pribatua Euskaraz	12
EUSKARAZKO ARGITALPEN GUZTIRA - EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK	12
ARGITALPEN PRODUKZIOA	13
EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN KOPURU TARTEAK	15
EUSKARAZKO ARGITALPENAK GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA	15
ARGITALPEN PRODUKZIOA, SAILEN ARABERA	17
EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA	18
EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, SAILEN ARABERA	22
BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA	26
KATALOGOKO IZENBURUAK	28
KATALOGOKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA	28
Merkaturatzea	32
2024KO FAKTURAZIOA	32
FAKTURAZIOAREN ZENBATEKOA, SAILEN ARABERA	32
FAKTURAZIOA SAILEZ SAIL JATORRIAREN ARABERA	35
LIBURUAK MERKATURATZEKO BIDEAK	38
BATEZ BESTEKO SALNEURRIAK ETA SALDUTAKO ALEAK	42
UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK, EUSKARAZ	44
Beste Datu Batzuk	52
ENPLEGUA	52
EGILE ESKUBIDEAK	52
Argitalpen Publikoa Euskaraz	53
Laburpena	55
SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK	58
Zehaztapen Metodologikoak	61

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1.- Unibertsoa eta lagina	9
Taula 2.- Euskaraz argitaratu zuten argitaletxeak	10
Taula 3.- 2024ko euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak.....	11
Taula 4.- Euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak	13
Taula 5.- Paperean argitaratutako izenburuen, argitaratutako aleen eta batez besteko argitaraldiaren 2022-2024 bilakaera. 2023arekiko aldakuntza	13
Taula 6.- Euskaraz argitaratutako izenburuak.....	15
Taula 7.- Argitaletxe kopurua, euskaraz argitaratutako izenburuen ehunekoaren arabera, guztizkoarekin alderatuta. Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe.	16
Taula 8.- Euskarazko izenburuen argitalpena paperean, sailen arabera, 2024an. Argitaletxe pribatuak..	18
Taula 9.- Izenburuak sailen arabera. 2022-2024 bilakaera. 2023arekiko aldakuntza.....	21
Taula 10.- 2024an euskaraz ekoizitako aleak, sailen arabera (milakotan). Argitaletxe pribatuak.....	22
Taula 11.- Aleak, sailen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023. Urtearekiko aldakuntza.....	25
Taula 12.- Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera, 2023an. Argitaletxe pribatuak	26
Taula 13.- Batez besteko tirada sailen arabera. bilakaera. aldea 2023. urtearekiko.....	27
Taula 14.- Katalogoko izenburuak euskaraz, 2024an. Argitaletxe pribatuak.....	28
Taula 15.- Katalogoko euskarazko izenburuak, sailen arabera, 2024an. Argitaletxe pribatuak	29
Taula 16.- Izenburu biziak, sailen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023 Urtearekiko	31
Taula 17.- Euskarazko fakturazioa 2024an. Argitaletxe pribatuak	32
Taula 18.- Euskarazko fakturazioa 2024an, sailen arabera. Argitaletxe pribatuak	33
Taula 19.- Fakturazioa, sailen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023. urtearekiko aldakuntza	36
Taula 20.- Euskarazko fakturazioa 2024an, merkaturatze bideen arabera. Argitaletxe pribatuak.....	38
Taula 21.- Fakturazioa, merkaturatze bideen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023 Urtearekiko aldakuntza	40
Taula 22.- Saldutako aleak. 2020-2024 bilakaera. 2023. Urtearekiko aldakuntza.....	42
Taula 23.- Argitaratutako aleen, saldutako aleen eta fakturazioaren arteko erlazioa	42
Taula 24.- EAE, NFE, IPAR EH eta Beste autonomia erkidego batzuen parte hartzea, hainbat magnitudetan	43
Taula 25.- 2024an argitaratutako unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburuak	44
Taula 26.- 2024an argitaratutako unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko aleak (milakotan).....	45
Taula 27.- Unibertsitatekoak ez diren euskarazko aleak (x 1.000). 2020-2024 bilakaera. 2023. urtearekiko aldakuntza	46
Taula 28.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko batez besteko argitaraldia 2024an	47
Taula 29.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburu biziak 2024an	47
Taula 30.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburu biziak 2020-2024 bilakaera. 2023. urtearekiko aldakuntza	48
Taula 31.- Unibertsitatekoak ez diren testuen euskarazko izenburu biziak 2024an	49
Taula 32.- nibertsitatekoak ez diren euskarazko testuen fakturazioa. 2020-2024 bilakaera. 2023. urtearekiko aldakuntza	50

Taula 33.- Nominapeko langileen kopurua. Enpresa pribatuak	52
Taula 34.- Eskubideak erosteko egindako ordainketen estimazioa.....	52
Taula 35.- Erakunde publikoen argitalpenen balioen banaketa, sailen arabera	54
Taula 36.- Lortutako balioen banaketa, argitaletxeen tipologiaren arabera. Balio absolutuak.....	55
Taula 37.- Lortutako balioen banaketa, argitaletxeen tipologiaren arabera. % bertikalak	55
Taula 38.- Euskarazko argitalpenaren ratio nagusiak, argitaletxeen tipologiaren arabera.	56
Taula 39.- Euskarazko liburuen argitalpenaren eta fakturazioaren datu nagusiak, sailen arabera. Argitaletxe pribatuak.....	57
Taula 40.- Euskaraz argitaratutako izenburuen eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak)	58
Taula 41.- Euskaraz argitaratutako izenburuen eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak)	58
Taula 42.- Euskaraz argitaratutako izenburu bizen eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak)	59
Taula 43.- Euskarazko fakturazioaren eta katalanez, galizieraz, gaztelaniaz eta espainian argitaratutako izenburuen datuen arteko konparazioa, sailen arabera (argitaletxe pribatuak)	59
Taula 44.- Haur eta gazte literatura eta unibertsitatekoak ez diren testuak sailen ehunekoak, hainbat hizkuntzatan, aztertutako magnitudeen arabera (argitaletxe pribatuak).	59

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1.- Argitaletxeen tipologia	10
Grafikoa 2.- Argitaletxeen ehunekoa, guztizkoarekin alderatuta euskaraz argitaratutako lanen arabera .	16
Grafikoa 3.- Argitaletxe pribatuek euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen banaketa sailka, jatorriaren arabera (%)	20
Grafikoa 4.- Sail bakoitzean euskaraz argitaratutako aleak, argitaletxe pribatuetan, jatorriaren arabera (%-etan)	24
Grafikoa 5.- Katalogoko euskarazko izenburuen banaketa sailen arabera, argitaletxe pribatuetan. Jatorriaren arabera (%-etan).....	30
Grafikoa 6.- Euskarazko fakturazioaren banaketa, sailen arabera, argitaletxe pribatuetan (%-etan).....	35
Grafikoa 7.- Euskarazko fakturazioaren bilakaera. Guztira eta sailen arabera (2020-2024)	37
Grafikoa 8.- Euskarazko fakturazioaren banaketa, merkaturatze bideen arabera, argitaletxe pribatuetan (%-etan).....	39
Grafikoa 9.- Euskarazko fakturazioaren bilakaera. Guztira eta merkaturatze bideen arabera (2020-2024)	41
Grafikoa 10.- Unibertsitatekoak ez diren euskarazko testuen fakturazioaren bilakaera. Osoa eta sailen arabera (2020-2024)	51
Grafikoa 11.- Lortutako balioak, argitaletxeen tipologiaren arabera. (% bertikalak)	56
Grafikoa 12.- Haur eta gazte literatura eta unibertsitatekoak ez diren testuak sailen argitalpena eta fakturazioa, aztertutako hizkuntzetan (%-etan)	60

SARRERA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak aurkezten du euskarazko argitalpenei buruzko hemezortzigarren txostena, 2024. urtekoa. Txostena elkarlanean egin da Euskal Editoreen Elkartearekin.

Txostenaren oinarrian dagoen ikerketak bildu ditu euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datuak, argitalpen-tokia gorabehera. Kontuan hartu dira, EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko datuak ez ezik, baita Frantziako Estatuko produkzioa ere (Ipar Euskal Herriko datuak). Gainera, aintzat hartu dira ere lurralde horietatik kanpo egonik euskarazko argitalpenak egin dituzten argitaletxeen produkzioak.

Halaber, txostenak biltzen ditu ere Administrazio Publikoaren eta haren mendeko erakundeen euskarazko argitalpenei buruzko datuak. Aurten ere, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagatik, Euskal Editoreen Elkarteari, Conecta Research & Consulting enpresak bidalitako galdetegiari erantzun dioten enpresei, ISBNren agentziari eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari. Horien laguntzarik gabe, azterlan hau ez litzateke posible izango.

METODOLOGIA

Arloa

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuaren argitalpena** da, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarleen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategorian honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko (Ipar EH) argitaletxeak.
- Beste Autonomia Erkidego batzuetako (Beste AE batzuk) argitaletxeak.
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2024. urtean argitalpenaren eremuko barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

Informazioaren bilketa

Azterlanean islatuta dagoen informazioa zenbait iturritatik jaso dugu:

- Euskadiko enpresa pribatuak. Horiei buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko argitalpenei buruzko XXX. txostenean bilduta dago.
- Euskaditik kanpoko argitalpen-enpresa pribatuetara bidalitako galde-sorta egituratu baten bitartez lortutako informazioa.
- Erakunde publikoei buruzko informazioa eta euskarazko argitalpenei buruzko beste zifra batzuk jaso dira telefono bidezko inkesten eta ISBNaren datu-basearen bitartez..

Eskuratutako informazioaren aurkezpena

Txosten honetan, lehenik eta behin, euskarazko argitalpenei buruzko datu orokorrak bildu ditugu: eragile editoreei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak. Horren ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu, Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako Autonomia Erkidegoak kontuan hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Liburuaren Barne Merkataritzari buruzko txostenean dago jasota. Txosten honetan, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako Autonomia Erkidegoetako argitaletxe pribatuenak ere sartu ditugu.

Beste atal batean, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. **Dena dela, garrantzitsua da aipatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Merkataritzari buruzko txostenean Euskal Herriko unibertsitate publikoak sartzen direla urtero. Beraz, erakunde horiei buruzko datuak ez dira argitalpen publikoari buruzko atalean sartuko, argitalpen pribatuaren atalean baizik.**

Azalpenak

- Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu. Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu-basea edo Liburuen Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2022an erregistratutako liburuen kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure iritziz: berrargitaratutako lanak dira, editoreak berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenak eta horientzat, zenbait kasutan, ez da ISBN zenbaki berririk eskatu..
- Ikerketa honen oinarria argitaletxeek emandako **datu zuzenak** dira, eta datu horiek **ISBNaren informazio osagarriarekin** aberasten dira; horrenbestez, argitalpenen sektoreak EAEn duen egoeraren azterketa zehatz eta fidagarria egin daiteke. Argitaletxeak izanik ardatz, produkzioaren eta merkatuan dagoen eskaintzaren ikuspegia lortzen da, betiere argitaletxeen ikuspuntutik begiratuta, baina helburua ez da txikizkako merkatuaren, azken salmenta puntuaren zifrak jasotzea.

Azterketaren fitxa teknikoa

Unibertsoa	133 argitaletxe. 2024an euskaraz argitaratu duten 125 argitaletxe (ISBNren datuen arabera), gehi Ipar Euskal Herriko 8 argitaletxe. 61 argitaletxe pribatu, Euskal Editoreen Elkarteko bazkideak. • 80 argitaletxe pribatu, bazkide ez direnak, 2023an argitalpenak egin dituztenak.
Laginaren tamaina	60 argitaletxe: • 56 pribatuak • 4 publikoak 56 argitaletxe pribatuen artetik, 31 EAEkoak dira (laginaren % 52,5), 4 NFEkoak, 8 Ipar Euskal Herrikoak eta 12 Beste Autonomia Erkidegoetakoak. Guztira, argitaletxe pribatuen % 46,3k eta erakunde publikoen % 33,3k erantzun dute. Galdetegiari erantzun ez dioten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako iturrietatik jaso dugu.
Lagina	Argitaletxeen fakturazioaren arabera sailkatua.
Laginaren errorea	Argitaletxeen errorea honako hau da: Errorea = + 9,41 % (2) % 95eko (1) konfiantza mailarako (1) $P = Q = \% 50$ (2) $E = \pm \sqrt{K (1-f) \times P \times Q / (n-1)}$
Galdeketa mota	Egituratua
Aplikazioa	Norberak betea
Landa lanerako datak	2024ko uztailetik urrira bitarte, Beste Autonomia Erkidegoetako argitaletxe pribatuen, argitaletxe publikoen eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeen datuak. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2025eko urtarrilaren 27tik irailaren 2ra.
Datuak taulan jartzea	Datuak aztertu ditu CONECTA Research & Consulting-ek.

Taula 1.- Unibertsoa eta lagina


	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	59	31	52,5
NFE	8	4	50,0
Ipar EH	8	8	100,0
Beste AE batzuk	46	13	28,3
Argitaletxe pribatuak, guztira	121	56	46,3
Argitaletxe Publikoak	12	4	33,3
Guztira	133	60	45,1

ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

2024an, 133 argitaletzek -publiko nahiz pribatu- argitaratu dute izenbururen bat euskaraz, Euskal Herrian edo Espainiako eta Frantziako Estatuetan. Tipologiaren eta kokapen geografikoaren arabera, honela banatzen dira enpresak:

- 61 argitaletxe pribatuk Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dute egoitza¹ (Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Merkataritzaren ikerlanak aztertu ditu). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak eta, elkarte horren barruan egon ez arren, 2024an argitaratu duten argitaletxeak
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 6 argitaletxe pribatu
- Ipar Euskal Herriko lurraldeetako 8 argitaletxe pribatu
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 46 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 12 erakunde publiko (EP). Argitalpen agenteak dira, jarduera nagusia argitalpenaz beste bat duten erakundeak direlako.

Grafikoa 1.- Argitaletxeen tipologia



Taula 2.- Euskaraz argitaratu zuten argitaletxeak

Argitaletxe pribatuak						EP	% Bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	79	70	0	0	0	9	45,4
NFE	13	2	6	0	0	5	7,5
Ipar EH	8	0	0	8	0	0	4,6
Kataluniako AE	12	0	0	0	12	0	6,9
Madrilgo AE	17	0	0	0	17	0	9,8
Beste AE batzuk	45	0	0	0	45	0	25,9
Guztira	174	72	6	8	74	14	100,0
% Horizontalak	100,0	41,4	3,4	4,6	42,5	8,0	

¹ Nafarroako bi argitaletxe Euskadiko Editoreen Elkarteko kide dira, eta horien datuak Euskal Autonomia Erkidegoan sartuta daude Argitalpenari buruzko txostenean. Baita hezkuntzaren arloko erakunde publiko baten datuak ere.

3. taulan gehiago zehazten da euskaraz argitaratzen duten argitaletxeen kopurua, tipologiaren arabera. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izenburu gehien dituztenak ere bildu dira. Horretaz gain, informazio modura, egilearen eta editorearen datuak ere sartu ditugu (azterlanean ez dira aintzat hartu).

Taula 3.- 2024ko euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak

Editore mota	Probintzia	Agenteak	Izenburuak, guztira	Izenburu gehien dituzten argitaletxeak
Guztira		255	1.980	
Egileak/editoreak, guztira		114	92	
	Araba	21	25	
	Gipuzkoa	36	19	
	Bizkaia	49	39	
	Nafarroa	5	6	
	Madril	2	2	
	Beste batzuk	1	1	
Pribatua, guztira		113	1.649	
	EAE ²	59	1.416	
	Araba	9	69	
	Gipuzkoa	31	525	
	Bizkaia	19	822	
	Nafarroa	8	79	Pamiela
				Txalaparta Argitalextea
				Katakrak
				Cenlit
	Bartzelona	12	22	Tekman Education SL
				Picarona
	Madril	17	87	Anaya
				Bruño
				Dykinson, S.L.
	Valentzia	6	10	Difusión Avances de Enfermería
	Badajoz	1	17	Edita
	Sevilla	1	7	Babidi-Bú
	Beste batzuk	9	11	
Publikoa, guztira		20	188	
Hezkuntza erakunde publikoak				
	Bizkaia	3	71	Euskal Herriko Unibertsitatea
Administrazio Autonomikoetako eta tokiko erakunde ofizialak		17	117	
	Araba			Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Zentrala
	Gipuzkoa			Arabako Foru Aldundia
	Bizkaia			Gipuzkoako Foru Aldundia
	Nafarroa			Euskaltzaindia
				Nafarroako Gobernua. Argitalpen funtsa
Ipar EH		8	51	

² EAEko argitaletxe pribatuen 1.469 izenburuei gehitu behar zaizkie, EAEko argitalpenaren azterlaneko datuetan egoteagatik: NFEko 2 argitaletxetako 57 izenburu eta Hezkuntza Erakunde Publiko baten 44 izenburu. Horrela lortzen dira 1.517 izenburu EAEn (txostenean aipatzen direnak).

NFE: 79 ken 57 izenburu = **22 izenburu**

Argitalpen publikoa (AP), guztira: erakunde publikoen 188 ken 71 izenburu = **117 izenburu**

ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

Euskarazko argitalpena guztira - Euskaraz argitaratutako izenburuak

Kontuan hartzen badira agente eta argitaletxe guztiak (egile/editoreak barne³), 1.980 izenburu argitaratu dira guztira euskaraz 2024an.

Izenburuen % 83,2 argitaletxe pribatuenak dira (1.649 izenburu), % 9,5 argitaletxe publikoenak (188), % 4,6 egile/editoreenak (92) eta % 2,6 Ipar Euskal Herrikoak (51).

	Euskaraz argitaratutako izenburuak guztira	
	Agenteak/Argitaletxeak	2024ko izenburuak guztira
Guztira	225	1.980
Egilea / editorea ³	114	92
Pribatua*	113	1.649
Publikoa*	20	188
Ipar Euskal Herria	8	51

* ISBNren agentziak 2024an euskaraz argitaratutako izenburuei buruz emandako datuak.

Egile/editoreak azterlan honen ("Euskarazko argitalpenei buruzko txostena") unibertsoetik kanpo daudenez, hemendik aurrera ez ditugu kontuan hartuko.

Beraz, 2024an euskaraz argitaratutako 1.980 izenburuetatik albo batera uzten baditugu egile/editoreen 92 izenburuak, **1.888** izenburu izango genituzke, argitaletxe pribatuek eta publikoek argitaratutakoak. Beraz, multzo horrek osatuko luke azterlan honetan aintzat hartutako unibertso espezifiko.

Oharra: argitaletxeen unibertsoaren barruan editoreen elkarteko kide den Hezkuntza Erakunde Publiko bat dagoenez, alor pribatuan kokatu izan da beti. Hortaz, argitaletxe horri buruzko informazio guztia sektore pribatuaren barruan aztertuko dugu hemendik aurrera.

- **Pribatua:** 1.649+71 (Hezkuntza Erakunde Publiko baten izenburuak, elkartekide izateagatik eta EAEko azterlanaren parte izateagatik sartua) + 23 Ipar Euskal Herrikoak. Horrela lortzen dira txostenean izendatuko ditugun **1.771** izenburuak.
- **Publikoa:** 188 izenburu ken 71 (pribatuaren barruan); hau da, **117** izenburu, dagokion atalean banakatuko ditugunak.

⁴ Gogoratu EAEren barruan hezkuntza erakunde publiko bat eta Nafarroako 2 argitaletxe daudela.

Argitalpen Produkzioa

2024an, EAEko, Beste Autonomia Erkidegoetako eta Ipar Euskal Herriko argitaletxe pribatuek 1.744 izenburu argitaratu dituzte euskaraz; horietatik 1.233 paperean. Euskaraz argitaratutako izenburuen proportzio handiena EAEn dagokio (% 87,0 guztira, % 88,9 paperean), eta atzetik datoz NFEko argitaletxeak (% 1,3 guztira, % 1,4 paperean), Ipar Euskal Herrikoak (% 2,9 guztira, % 2,8 paperean) eta Beste Autonomia Erkidegoetako argitaletxeak (% 8,8 guztira, % 6,9 paperean).

Paperean argitaratutako izenburuei dagokienez, % 10,9ko jaitsiera orokor bat izan da 2023tik 2024ra.

Argitaletxe hauek 2.490.651 ale argitaratu dituzte 2024an; hau da, % 9,0ko jaitsiera 2023ari dagokionez. Ale gehienak EAEn argitaratu dira (% 96,4).

2.020 ale argitaratu dira izenburu bakoitzeko batez beste, aurreko urteko datuaren oso antzekoa.

Taula 4.- Euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak

	Argitaratutako izenburuak	%	Paperean argitaratutako izenburuak	%	Paperean argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia paperean
Guztira	1.744	100,0	1.233	100,0	2.490.651	100,0	2.020
EAE	1.517	87,0	1.096	88,9	2.401.000	96,4	2.191
NFE	22	1,3	17	1,4	8.023	0,3	472
Ipar EH	51	2,9	35	2,8	15.952	0,6	456
Beste AE batzuk	154	8,8	85	6,9	65.676	2,6	773

Jarraian aztertuko ditugu euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak eta azken urteetan izan duten bilakaera: argitaratutako izenburuak, paperean argitaratutakoak, ale-kopurua eta batez besteko tirada.

Taula 5.- Paperean argitaratutako izenburuen, argitaratutako aleen eta batez besteko argitaraldiaren 2022-2024 bilakaera. 2023arekiko aldakuntza

	Paperean argitaratutako izenburuak			
	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Guztira	1.386	1.384	1.233	-10,9
EAE	1.122	1.137	1.096	-3,6
NFE	48	46	17	-63,0
Ipar EH	32	23	35	52,2
Beste AE batzuk	184	178	85	-52,2

	Paperean argitaratutako aleak (x 1.000)			
	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Guztira	2.787	2.737	2.491	-9,0
EAE	2.605	2.532	2.401	-5,2
NFE	18	19	8	-57,8
Ipar EH	20	13	16	19,6
Beste AE batzuk	144	173	66	-62,0

	Batez besteko argitaraldia paperean			
	2022	2023	2024	Aldea 2023-2022
Guztira	2.066	1.978	2.020	42
EAE	2.401	2.227	2.191	-36
NFE	377	413	472	59
Ipar EH	630	580	456	-124
Beste AE batzuk	783	972	773	-199

Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tartearak

2024an, 141 argitaletxeen % 41,1ek izenburu bakarria argitaratu dute euskaraz. Argitaletxeen % 28,4k 2-4 izenburu euskaraz, eta % 11,3k 5-9 izenburu. Bestetik, argitaletxeen % 10,6k 10-49 izenburura kaleratu dituzte euskaraz, eta gainerako % 8,5ak 50 izenburu edo gehiago.

Taula 6.- Euskaraz argitaratutako izenburuak

	Guztira %	Guztira. Argitaletxek op.	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			CAE ⁴	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
Guztira	100,0	141	59	8	8	46	20
1 izenburu	41,1	58	20	2	0	27	9
2-4 izenburu	28,4	40	21	2	0	11	6
5-9 izenburu	11,3	16	6	2	0	6	2
10-49 izenburu	10,6	15	9	2	0	2	2
50 izenburu edo gehiago	8,5	12	3	0	8	0	1

Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta

Euskaraz argitaratutako izenburuek zenbateko ehunekoa osatzen dute argitaratutako izenburuen guztizkoari dagokionez?

Oro har (Ipar Euskal Herriko 8 argitaletxeak alboratuta), 133 argitaletxek argitaratu dute euskaraz 2024an. Argitaletxe horien % 39,8k euskarazko izenburuen % 25 baino gutxiago argitaratu dituzte; % 30,8k, aldiz, % 75 baino gehiago.

113 argitaletxe pribatuen artetik, % 30,1ek beren izenburuen % 75 baino gehiago argitaratu dituzte euskaraz; hots, 34 argitaletxek. Horietatik, 32 EAEn daude; 2 NFEn. Argitaletxe pribatuetatik 14k (10 EAEkoak) euskaraz argitaratu dituzte beren lanen % 50-75. Beste 14 enpresak beren izenburuen % 25-49 argitaratu dituzte euskaraz (8 EAEkoak); aldiz, 51 argitaletxe pribatuk beren produkzioaren % 25 baino gutxiago kaleratu dute euskaraz (9 EAEn eta 41 Beste Autonomia Erkidegoetan).

Azterlanean jasotako 20 erakunde publikoei dagokienez, 7k beren lanen % 75 baino gehiago argitaratu dituzte euskaraz.


⁴ Gogoratu EAEren barruan hezkuntza erakunde publiko bat eta Nafarroako 2 argitaletxe daudela.

Taula 7.- Argitaletxe kopurua, euskaraz argitaratutako izenburuen ehunekoaren arabera, guztizkoarekin alderatuta. Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe.

Argitaletxe kopurua	Guztira	Pribatuak, guztira	Argitaletxe pribatuak*			EP
			EAE	NFE	Beste AE batzuk	
Guztira	133	113	59	8	46	20
% 25 baino gutxiago	53	51	9	1	41	2
% 25 - % 49	17	14	8	2	4	3
% 50 - % 75	22	14	10	3	1	8
% 75 baino gehiago	41	34	32	2	0	7

* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

Grafikoa 2.- Argitaletxeen ehunekoa, guztizkoarekin alderatuta euskaraz argitaratutako lanen arabera



Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu (paperean argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak), sailen arabera. Sail bakoitzean honako alderdi hauek lantzen dira:

- Helduentzako fikzioa: eleberria, poesia eta antzerkia, bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...).
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitatekoak ez diren testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta Liburuak nahiz material osagarriak.
- Ez fikzioa:
 - Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorroztasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
 - Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina biltzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
 - Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
 - Dibulgazioa orokorra: sail honetan sartzen dira Dibulgazioko beste liburu batzuk saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
 - Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa: hau da, Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak, gehi Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak.
- Liburu praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak: hau da, Liburu praktikoak, Dibulgazio orokorra eta Hiztegiak eta entziklopediak
- Beste sail batzuk: Komikiak eta bestelakoak.

Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

2024an, argialetxe pribatuek 1.233 izenburu argitaratu dituzte euskaraz paperean; % 88,9 (1.096) EAEn.

Argialetxe pribatuen kasuan, euskarazko produkzioa bi sail tematiko nagusitan oinarritzen da. Unibertsitatekoak ez diren testuek jarraitzen dute izatean nagusi, euskaraz argitaratutako guztizkoaren % 33,9arekin. Ondoren kokatzen da Haur eta Gazte literatura: paperean euskaraz argitaratutako izenburuen % 30,6. Bi sailak, batera hartuta, paperean euskaraz argitaratutako guztizkoaren % 64,5 dira.

Beste Autonomia Erkidegoetako sailen arabera banaketari erreparatuz gero (paperean argitaratutako izenburu guztien % 6,9), Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta Gazte literatura % 37,6 eta %27,1 dira, hurrenez hurren. Bater a hartuta, bi-biek paperean argitaratutakoen % 64,7 hartzen dute.

Taula 8.- Euskarazko izenburuen argitalpena paperean, sailen arabera, 2024an. Argialetxe pribatuak


	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (balio absolutuak)	1.233	1.096	17	35	85
Helduentzako fikzioa	173	155	1	12	5
Eleberria	129	112	7	6	4
Poesia. Antzerkia	27	20	1	5	1
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	25	23	0	2	0
Haur eta gazte literatura	377	329	11	14	23
Unibertsitatekoak ez diren testuak	418	379	0	7	32
Haur Hezkuntza	35	35	0	0	0
Lehen Hezkuntza	194	170	0	5	19
DBH	131	122	0	0	9
Batzilergoa	11	7	0	2	2
Lanbide Heziketa	0	0	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	47	45	0	0	2
Fikziozkoak ez direnak	214	185	5	0	22
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa	161	140	5	0	16
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	53	45	0	0	6
Bestelakoak	51	48	0	2	3

* NFEko bi argialetxeren datuak EAEn sartu dira

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	14,1	14,1	5,9	35,1	5,9
Eleberria	9,9	10,2	0,0	16,1	4,7
Poesia. Antzerkia	2,2	1,8	5,9	13,5	1,2
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	2,0	2,1	0,0	5,5	0,0
Haur eta gazte literatura	30,6	30,0	64,7	40,4	27,1
Unibertsitatekoak ez diren testuak	33,9	34,6	0,0	18,8	37,6
Haur Hezkuntza	2,8	3,2	0,0	0,0	0,0
Lehen Hezkuntza	15,7	15,5	0,0	14,2	22,4
DBH	10,6	11,1	0,0	0,0	10,6
Batxilergoa	0,9	0,6	0,0	5,7	2,4
Lanbide Heziketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuak eta material osagarriak	3,8	4,1	0,0	0,0	2,4
Fikziozkoak ez direnak	17,3	16,9	29,4	0,0	25,9
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa	13,1	12,8	29,4	0,0	18,8
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	4,3	4,1	0,0	0,0	7,1
Bestelakoak	4,1	4,4	0,0	5,4	3,5

Helduentzako fikzioa da beste sail garrantzitsuenetako bat: paperean argitaratutako izenburuen % 14,1.

Helduentzako fikzioaren barruan, honela banatzen dira generoak: Eleberria % 70,2, Poesia eta antzerkia % 15,4, eta Beste literatura batzuk % 14,4.




2024an, EAEko argitaletxe pribatuei dagokie euskarazko produkzioen zati handiena: hizkuntza horretan paperean argitaratutako izenburuen % 88,9.

Pisu hori are handiagoa da sail batzuetan: Helduentzako fikzioa (% 89,4), Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 90,8) eta Bestelakoak (% 90,8), non EAEko argitaletxeak argi eta garbi nagusi diren.

Bestetik, Beste Autonomia Erkidegoetako argitaletxeek euskaraz paperean argitaratutako izenburuen % 6,9 kaleratu dituzte. Hala ere, argitaletxe horien ekarpena zertxobait handiagoa da Unibertsitatekoak ez diren testuetan eta Fikziozkoak ez diren testuetan, eta pitin bat gainditzen dute hor batez besteko orokorra.

Grafikoa 3.- Argitaletxe pribatuek euskaraz eta paperean argitaratutako izenburuen banaketa sailka, jatorriaren arabera (%)



Aipatu den bezala, behera egin du, aurreko urteari dagokionez, paperean argitaratutako izenburuen kopuruak.

Taula 9.- Izenburuak sailen arabera. 2022-2024 bilakaera. 2023arekiko aldakuntza

	Paperean argitaratutako izenburuak			
	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
GUZTIRA (balio absolutuak)	1.386	1.384	1.233	-10,9
Helduentzako fikzioa	201	202	173	-14,2
Haur eta gazte literatura	398	392	377	-3,8
Unibertsitatekoak ez diren testuak	536	504	418	-17,1
Fikziozkoak ez direnak	196	222	212	-4,5
Beste sail batzuk	55	64	53	-17,4

	Paperean argitaratutako izenburuak			
	2022	2023	2024	Aldea 2024-2023
GUZTIRA (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	
Helduentzako fikzioa	14,5	14,6	14,1	-0,5
Haur eta gazte literatura	28,7	28,3	30,6	2,3
Unibertsitatekoak ez diren testuak	38,7	36,4	33,9	-2,5
Fikziozkoak ez direnak	14,1	16,0	17,2	1,2
Beste sail batzuk	4,0	4,6	4,3	-0,3

Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

2024an, argitaletxe pribatuek 2.490.651 ale argitaratu dituzte euskaraz, aurreko urtean baino % 9,0 gutxiago. Ale horietatik, % 96,4 argitaratu dira EAEn, % 0,3 NFEen, % 0,3 Ipar Euskal Herrian eta % 2,6 Beste Autonomia Erkidegoetan.

2024an, Unibertsitatekoak ez diren testuak izan dira nagusi euskaraz argitaratutako aleei dagokienez: guztizkoaren % 48,2. Ondoren, distantzia handi samarrera, Haur eta Gazte literatura, argitaratutako aleen % 27,4arekin. Bi sailek batera euskarazko guztizkoaren % 75,6 hartzen dute, eta agerian uzten du horrek hezkuntza arloak eta gazteentzako lanek euskarazko produkzioan duten nagusitasuna.


Taula 10.- 2024an euskaraz ekoiztutako aleak, sailen arabera (milakotan). Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (balio absolutuak)	2.491	2.401	8	16	66
Helduentzako fikzioa	247	239	0	5	3
Eleberria	191	187	0	2	3
Poesia. Antzerkia	24	22	0	1	0
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	32	30	0	2	0
Haur eta gazte literatura	681	658	6	7	10
Unibertsitatekoak ez diren testuak	1.201	1.163	0	3	35
Haur Hezkuntza	87	87	0	0	0
Lehen Hezkuntza	619	595	0	2	22
DBH	310	300	0	0	10
Batxilergoa	19	16	0	1	2
Lanbide Heziketa	0	0	0	0	0
Liburuak eta material osagarriak	166	165	0	0	1
Fikziozkoak ez direnak	265	248	2	0	15
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erlijioa	154	141	2	0	11
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	111	107	0	0	4
Bestelakoak	97	93	0	1	3

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	9,9	10,0	4,4	30,0	4,4
Eleberria	7,7	7,8	0,0	11,0	3,9
Poesia. Antzerkia	1,0	0,9	4,4	7,0	0,5
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	1,3	1,2	0,0	12,0	0,0
Haur eta gazte literatura	27,4	27,4	74,4	44,0	15,7
Unibertsitatekoak ez diren testuak	48,2	48,4	0,0	19,0	53,1
Haur Hezkuntza	3,5	3,6	0,0	0,0	0,0
Lehen Hezkuntza	24,9	24,8	0,0	13,5	33,5
DBH	12,5	12,5	0,0	0,0	15,6
Batzilergoa	0,8	0,7	0,0	5,4	2,8
Lanbide Heziketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuak eta material osagarriak	6,7	6,9	0,0	0,0	1,1
Fikziozkoak ez direnak	10,6	10,3	21,2	0,0	22,8
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	6,2	5,9	21,2	0,0	16,7
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	4,5	4,5	0,0	0,0	6,1
Bestelakoak	3,9	3,9	0,0	7,0	4,0

Helduentzako fikzioa, sail garrantzitsua ere, guztizkoaren % 9,9ra heltzen da.


Helduentzako fikzioaren barruan, honako hau da generoen arabera euskaraz argitaratutakoen banaketa: Eleberria, % 77,4, Poesia eta antzerkia, % 9,6, eta Bestelakoak, % 12,9.



Argitaratutako ale guztien % 96,4 EAEko enpresek kaleratu dituzte. Bi sail batez bestekoaren gainetik daude: Helduentzako fikzioa (% 96,7), Haur eta Gazte literatura (% 96,6) eta Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 96,8).

Beste Autonomia Erkidegoetako argitaletxeek guztira argitaratutako aleen % 2,0 kaleratu dituzte, eta ehuneko hori gainditzen dute Haur eta gazte literaturak (% 2,9) eta Bestelakoek (% 2,7) .

Grafikoa 4.- Sail bakoitzean euskaraz argitaratutako aleak, argitaletxe pribatuetan, jatorriaren arabera (%-etan)



Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, euskaraz argitaratutako aleen kopuruak % 9,0 egin du behera. Beheraka sail guztietan gertatu da.

Aleen erdiak Unibertsitatekoak ez diren testuei dagozkie; % 27,4, Haur eta gazte literaturari.

Taula 11.- Aleak, sailen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023. Urtearekiko aldakuntza

Argitaratutako aleak (x 1.000)	2020*	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2024/2023
Guztira	2.666	2.807	2.787	2.737	2.491	-9,0
Helduentzako fikzioa	272	285	277	278	247	-11,2
Haur eta gazte literatura	673	748	728	704	681	-3,2
Unibertsitatekoak ez diren testuak	1.369	1.419	1.418	1.378	1.201	-12,9
Fikziozkoak ez direnak	244	245	253	271	265	-2,3
Beste sail batzuk	108	109	111	106	97	-9,1

% bertikalak	2020*	2021	2022	2023	2024	Aldea 2024-2023
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
Helduentzako fikzioa	10,2	10,2	10,0	10,2	9,9	-0,2
Haur eta gazte literatura	25,2	26,7	26,1	25,7	27,4	1,7
Unibertsitatekoak ez diren testuak	51,3	50,6	50,9	50,3	48,2	-2,1
Fikziozkoak ez direnak	9,1	8,7	9,1	9,9	10,6	0,7
Beste sail batzuk	4,1	3,9	4,0	3,9	3,9	0,0

Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

2024an, batez beste 2.020 ale argitaratu dira euskaraz izenburu bakoitzeko. EAEko argitaletxe pribatuei dagokienez, batez beste 2.191 ale argitaratu dituzte izenburu bakoitzeko; NFEko argitaletxe pribatuek 472, Ipar Euskal Herrikoek 456 eta Beste Autonomia Erkidegoetakoek 733.

Sailen arabera, batez besteko tirada handiena Unibertsitatekoak ez diren testuek izan dute: 2.876 ale izenburu bakoitzeko.

Taula 12.- Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera, 2024an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (balio absolutuak)	2.020	2.191	472	456	773
Helduentzako fikzioa	1.425	1.542	353	388	581
Eleberria	1.572	1.670	-	310	639
Poesia. Antzerkia	891	1.100	353	236	347
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	1.280	1.304	-	994	-
Haur eta gazte literatura	1.806	2.000	543	495	448
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.876	3.069	-	458	1.089
Haur Hezkuntza	2.486	2.486	-	-	-
Lehen Hezkuntza	3.192	3.500	-	431	1.160
DBH	2.369	2.459	-	-	1.142
Batzilergoa	1.699	2.286	-	431	915
Lanbide Heziketa	-	-	-	-	-
Liburuak eta material osagarriak	3.526	3.667	-	-	358
Fikziozkoak ez direnak	1.249	1.341	340	-	682
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	955	1.007	340	-	688
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	2.176	2.378	-	-	-
Bestelakoak	1.829	1.938	-	591	873

Beheko taulak erakusten du batez besteko tiradak azken hiru urteetan izan duen bilakaera.

Batez beste, 42 ale gehiago argitaratu dira izenburu bakoitzeko azken urtean.

Sail guztien batez besteko tiradak egin du gora.

Taula 13.- Batez besteko tirada sailen arabera. Bilakaera. Aldea 2023. urtearekiko.

	2022	2023	2024	Aldea 2024-2023
Guztira	2.011	1.978	2.020	42
Helduentzako fikzioa	1.380	1.377	1.425	48
Haur eta gazte literatura	1.829	1.795	1.806	12
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.645	2.735	2.876	141
Fikziozkoak ez direnak	1.293	1.220	1.249	29
Beste sail batzuk	2.011	1.664	1.829	165

Katalogoko izenburuak

Argitaletxeek euskarazko 18.546 izenburu dituzte katalogoan.

2024an katalogoan dauden izenburuen % 82,9 EAEn daude, % 2,7 NFEen, % 1,9 Ipar Euskal Herrian eta % 12,5 Beste Autonomia Erkidegoetan.

Taula 14.- Katalogoko izenburuak euskaraz, 2024an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira	18.546	15.383	495	345	2.323
% horizontala	100,0	82,9	2,7	1,9	12,5
Argitaratutako izenburuak	1.233	1.096	17	35	85
Katalogoko izenburuak / Argitaratutako izenburuak	15,0	14,0	29,1	9,9	27,3

2024an, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz paperean argitaratutakoen arteko erlazioa 15,0 da. Proportzio hori aldatu egiten da argitaletxeen kokapenaren arabera: EAEko argitaletxe pribatuak (14,0), NFE (29,1), Ipar Euskal Herria (9,9) eta Beste Autonomia Erkidegoak (27,3).

Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Euskarazko izenburuen guztizko katalogoaren barruan, bi sail dira nagusi. Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 37,4) eta Haur eta Gazte literatura (% 30,5). Biak batera euskarazko katalogoaren % 67,9 dira, eta agerian uzten du horrek hezkuntza arloaren eta haur eta gazteentzako argitalpenen nagusitasuna hizkuntza horretan.

Unibertsitatekoak ez diren testuen eta Haur eta Gazte literaturaren garrantzia are handiagoa da Beste Autonomia Erkidegoetan: bi sailak batera euskarazko katalogoaren % 86,0ra iristen dira.

NFEen, aldiz, Helduentzako fikzioa da nagusi, argitaratutako izenburuen % 42,5arekin. Bestetik, Ipar Euskal Herrian, Haur eta Gazte literatura gailentzen da, euskarazko produkzio osoaren % 40,0arekin.

Hurrengo orrialdeko tauletan ikus daitezke katalogoan dauden euskarazko izenburuak sailen arabera.

Taula 15.- Katalogoko euskarazko izenburuak, sailen arabera, 2024an. Argitaletxe pribatuak

	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (balio absolutuak)	18.547	15.383	496	345	2.323
Helduentzako fikzioa	2.923	2.561	211	121	30
Eleberria	1.974	1.686	170	100	18
Poesia. Antzerkia	379	332	24	14	9
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	570	543	17	7	3
Haur eta gazte literatura	5.657	4.404	186	138	929
Unibertsitatekoak ez diren testuak	6.931	5.792	15	55	1.069
Haur Hezkuntza	1.286	1.180	3	7	96
Lehen Hezkuntza	2.552	2.133	4	38	377
DBH	1.846	1.388	6	7	445
Batxilergoa	375	323	1	3	48
Lanbide Heziketa	10	5	0	0	5
Liburuak eta material osagarriak	862	763	1	0	98
Fikziozkoak ez direnak	2.562	2.258	71	17	216
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	1.832	1.648	56	0	128
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	730	610	15	17	88
Bestelakoak	474	368	13	14	79


	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
GUZTIRA (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Helduentzako fikzioa	15,8	16,6	42,5	35,0	1,3
Eleberria	10,6	11,0	34,3	29,0	0,8
Poesia. Antzerkia	2,0	2,2	4,8	4,0	0,4
Bestelakoak (kritika, saiakera literarioak...)	3,1	3,5	3,4	2,0	0,1
Haur eta gazte literatura	30,5	28,6	37,5	40,0	40,0
Unibertsitatekoak ez diren testuak	37,4	37,7	3,0	16,0	46,0
Haur Hezkuntza	6,9	7,7	0,6	2,0	4,1
Lehen Hezkuntza	13,8	13,9	0,8	11,0	16,2
DBH	10,0	9,0	1,2	2,0	19,2
Batxilergoa	2,0	2,1	0,2	1,0	2,1
Lanbide Heziketa	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2
Liburuak eta material osagarriak	4,6	5,0	0,2	0,0	4,2
Fikziozkoak ez direnak	13,8	14,7	14,3	5,0	9,3
Zientziak, Gizarte Zientziak, Ekonomia Zientziak, Zuzenbidea eta Erljioa	9,9	10,7	11,3	0,0	5,5
L. praktikoak, Dibulgazioa eta Hiztegiak	3,9	4,0	3,0	5,0	3,8
Bestelakoak	2,6	2,4	2,6	4,0	3,4

Banaketa geografikoari dagokionez, argitaletxe pribatuen katalogoko euskarazko izenburuen % 82,9 EAEko enpresenak dira, % 12,5 Beste Autonomia Erkidegoetako enpresenak, % 2,7 NFEko argitaletxeenak eta % 1,9 Ipar Euskal Herriko argitaletxeenak.

EAEko katalogoko izenburuen proportzioak guztizko batez bestekoa gainditzen du Helduentzako fikzioa (% 87,6) eta Fikziozkoak ez direnak (% 88,1) sailetan.

Bestetik, Beste Autonomia Erkidegoetan, katalogoko euskarazko izenburu bizen proportzioa handiagoa da Unibertsitatekoak ez diren testuetan (% 15,4), Haur eta Gazte literaturan (% 16,4) eta Bestelakoetan (% 16,7).

Grafikoa 5.- Katalogoko euskarazko izenburuen banaketa sailen arabera, argitaletxe pribatuetan. Jatorriaren arabera (%-etan)



Hurrengo tauletan ikus daiteke izenburu biziak azken 5 urteetan izandako bilakaera, sailen arabera, bai eta aurreko urtearekiko aldaketa ere.

Taula 16.- Izenburu biziak, sailen arabera. 2020-2024 bilakaera. 2023 Urtearekiko aldakuntza

Izenburu biziak (x 1.000)	2020*	2021	2022	2023	2024	Aldakuntza (%) 2023/2024
Guztira	15.962	16.749	17.349	18.096	18.546	2,5
Helduentzako fikzioa	2.619	2.742	2.815	2.945	2.923	-0,8
Haur eta gazte literatura	4.775	4.947	5.107	5.350	5.657	5,7
Unibertsitatekoak ez diren testuak	5.988	6.346	6.663	6.887	6.930	0,6
